

Armenia

Genozidioa gogoan

Genozidioak herri oso baten desagertzea du helburu. Oro har, estatua izaten da erasotzailea, eta biktima berriz, bere menpeko gutxiengoa. Armeniar genozidioa ere hala izan zen. Apirilaren 24an, armeniarrek beren historiaren egunik tragikoena gogoratzen dute, baina nazioartean hedabideek apenas erreparatuko dioten herri honen doliari aste honetako albisteetan. Kronika hau armeniarren bihotzetik idatzitakoa duzue.

Argazkiak eta testua:

KARLOS ZURUTUZA

“NIRE AMA ERZINCAN-EN JAIO ZEN. Herrian bertan ez, baina gertuko errepide batean. Aiton-amonak turkiarrendandik ihesean zebiltzan; herri osoa, Erzincan osoa zebilen ihesean”, hasi da kontatzen Anahit Stepanian, bere amaren argazki horixka bat eskuan duela. Egun, Erzincan Turkia ekialdeko herri txiroetako bat da eta Wikipedia munduko entziklopedia birtual handienaren arabera, “lurrikara batek suntsitu zuen XX. mendeko 30eko hamarkadan”. Horixe, beraz, interneteko datu-base erraldoiak milioika bisitariei aipatzen dien tragedia bakarra. Tamalez, gutxiegi dira oraindik Anahit Stepanianen argazki zaharra ikusi dutenak.

Stepanianek begi handi, ilun eta tristeak dauzka, armeniar askoren antzera, eta 55 urte beteko ditu aurten. Sei hizkuntza menderatzen ditu, *Intouristeko* (Sobietar Turismo Agentzia) langilea izan baitzen urte askoz. Gero, sobietar kolapsoak Armeniaren independentzia ekarri zuen, eta baita langabezia, gerra eta ondorioz, turismoaren desagertzea ere.

“Berriz hastea izan zen guretzat —dio Stepanianek—, baina gauzak hobetzen zihoazela, alar-gun gelditu nintzen. Orduan erabaki nuen nire etxeko logelak alokatzea”. Berak eta bere bi semeek, Zaven eta Vahan-ek, harrera beroa egiten diete euren etxera inguratzen diren bidaiariei. Yerevango harrizko etxe batean bizi dira, Askatasun Plaza eta Opera eraikinaren parean. Oso etxe handia da eta bisitarietarako makina bat oheez gain, koadro eta liburu ugari daude, baita piano bat ere. Atentzioa ematen dute komun eta sukaldeko pitxar, garbiontzi eta tankerakoek. Beste gauza askoren artean, ur eskasi handia

dago Armenian; gaur ere, ur mozketak arratsaldeko zazpiak arte iraungo du.

“Dagoeneko Ararat ez da ikusten zure logelatik —esan dit Stepanianek, leihotik begira dagoela—. Erdialdean eraiki dituzten etxebizitza bloke madarikatuek ezkutatu dute”. Duela hiru urte, Ararat mendiaren bista zuen gela eskaini zidan etxeko jabeak. Baina kutsadura lainoa zela-eta, nekez erreparatu nion mendiari lehenengo bi egunetan. Hirugarrenean, Stepanianek begiratzeko esan zidan, zerua garbi zegoela. Orduan konturatu nintzen Ararati buruz entzundako guztia egia zela: bere gailur elurtuak korroa dirudi egunsentiko lehenengo izpiekin, eta miresgarri altxatzen da 5.000 metroko erraldoia, grabitate-rik gabe airean zintzilikaturik balego bezala. Egun hartan, zerua garbi mantendu zen eta Yerevango kaleetatik nindoala, mendia behin eta berriz agertu zitzaidan hiribideen bukaeran. Hiritik 60 kilometrora dagoen arren, paseotxo batean iritsiko nintzela ematen zuen, hain da handia mendiaren lilura. Baina banekien txangoa ezinezkoa zela, amildegi batek banatzen baititu egungo Armenia eta bere ikur nagusia: Ararat Turkian dago, eta bi herrialdeon arteko muga irmoki itxita dago aspaldi. Gaur, alanbre hesiek josten dute oraindik sendatu ez den zauri sakon eta mingarria.

XIX. mende bukaeran 2.500.000 armeniar ei zeuden Turkiako lurraldean; 1923an, 100.000 baino ez. Zer gertatu zen? Zerk kutsatu zuen herri honen kontrako gorrotoa politikari, militar eta Turkiako jende xumearen artean?

1915eko apirilaren 24an, Turkiako ekialdean armeniarren matxinada zapuzteko aitza-



*"Begiek ikusten duten oro,
bihotzak ez du ahaztuko"*
Armeniar erreforma

kiaz, Talaat Pacha turkiar Barne ministroak hasiera eman zion herri oso baten desegiteari: gizonezkoak sistematikoki fusilatu zituzten; emakumeak nahiz umeak bortxatu, eta amaigabeko distantziak oinez zeharkatzera behartu. Neke edo deshidratazioaren biktima izan ez zirenak kontzentrazio eremuetara eramane zituzten, 25 urte beranduago judutarrek jasango zutenaren aitzindari.

"Inor ez da armeniarren genozidioaz gogoratzen", esan omen zien Hitlerrek bere jeneralei, juduak sarraskitzeko egitasmoa azaldu zienean. Eta arrazoi zuen. Sarraskiaz geroztik, Ararat mendia dute armeniarrek lekuko, zenbat hil ziren eta zenbat galdu zen egunero gogorazten dien ikur eder bezain saihestezina. Atom Egoyan zinemagilearen genozidioari buruzko filmak *Ararat* izena du, eta baita ere futbol talde nazionalak, herrialdeko koñakaren distilategi handienak, hainbat egunkari eta enpresek...

Bestalde, Elia Kazanen *America, America* filmak sarraskiaren osteko emigrazioa jasotzen du. Estatu Batuetan bizi da, hain justu, arme-

Turkiako ekialdean armeniarren
matxinada zapuzteko aitzakiaz,
gizonezkoak sistematikoki
fusilatu zituzten eta emakumeak
nahiz umeak bortxatu

niarren talderik handiena: Ararat izena duen kreditu txartel bat erabiltzen dute askok eta mundu osoan sakabanatuta dauden gainontzeko armeniarrei bezala, "mendealdeko armeniarrek" deitzen zaie.

"Ekialdekoak" egungo Armenian bizi dira, turkiarren basakeria saihestu eta sobietar munduan zazpi hamarkada eman zituen eskualdean. Yerevango arkitektura karra-tu eta monotonoan Moskuren eragina agerikoa bada ere, hiri honek badu "Inperio Gorri"ko beste edozein hiritik bereizten duen xehetasun bat: Armeniako hiriburua arrosa da; zehatzago esanda, haragi egosiaren kolorekoa. Eraikin guztiak, elizak, herrialdeko parlamentua edota etxebizitza bloke arruntak, arrosa koloreko bafada-harriz eginda daude. Ulertzekoa da, harria besterik ez baitago Armenian; ez basorik, ez landaririk, ez petroliorik, ez urik... Arroka baino ez.

Zazpi milioi armeniar daude munduan eta horietatik, erdia baino ez da bizi Armenian. AEB, Frantzia edota Australiako armeniarrek diru asko bidali edo inbertitu ohi dute bertan.



Hortik dator Yerevan erdialdeko europar giroa: terrazak, arte galeriak, arropa dendak... Zaharrek diote jatorriko Yerevan desagertu eta “mendebaldeko armeniarren Disneylandia”ren itxura hartzen ari dela. Egia ala ez, hiriko auzo historikoa eraitsi eta gero, luxuzko etxebizitzak eraiki dira berriki, Yerevango azken armeniar etxeak zeuden tokian. Diasporaren opor-etxe hauek altuak dira eta jada ez da erraza hiriaren erdialdetik Ararat bistan izatea.

“Unibertsoaren erdia”

“Unibertsoaren erdira goaz orain”, esan dit irribarrez nire alboan eseri den adin ertaineko gizon txikiak. Gagik Kasapian izena duela nekez ulertu diot, Krushev –agintari sobietar ezaguna– gaztea zeneko autobus honen motorrak ez du treguarik ematen-eta. Bidaiari berriak han eta hemen hartu ditugu eta Yerevan kanpoaldeko azken etxe arrosak atzean utzi orduko lepo dago gure sobietar erlikia. Ordu erdi pasatxoan Ekhmiatzingo katedrallean gaude, armeniar “unibertsoaren erdian”.

Armeniarrek eliza propioa dute, Armeniar Eliza Apostoliko eta Ortodoxoa, eta haxe da euren Vatikanoa, munduko armeniar guztiek ukitu nahi duten *Kaaba* harria. Gainera, herrialde sozialista ohietako elizen artean aberatsena

Goiko irudian, Khor Virap monasterioa eta Ararat mendia, mugak banatutako bi armeniar ikur. Aurreko orrialdean, Armeniarren Betiereko Sua, Genozidioaren monumentuan.

hau izan da betidanik: mendebaldeko armeniarrek bisitatu eta ukitu ez ezik, diru-ekarpen eskuzabalak egin ohi dituzte. Eserlekutik altxatzean Kasapianek azaldu didanez, sobietar garaian erlijioa debekatuta zegoen, baina *Katolikosak* (eliz buruak) ez zuen inoiz meza zerbitzua eten. IV. mendean sortu zuen Done Gregoriok eliza hau, Venus jainkosaren omeneko tenplu bat zegoen lur berean. Historiako lehen estatu kristaua da Armenia.

Autobusean etorri garenok jende uholdearekin bat egin dugu katedralera bidean. Sartu bezain laster, norberak bere kandela piztu, hondarrez beteriko ontzietan paratu eta otoi egiten du. Kandela argiak fededun bakoitzaren aurpegia bereizi du: begiak itxita batzuk, buru makur besteak eta ziurrenik, etorkizunerako antzeko eskaerekin guztiak. Ekialdeko eliza gehienetan ez dago eserlekurik; beraz, zutik egon behar dugu armeniar mezaren ikuskizunaz gozatzeko. Nolanahi, batzuek belauniko eman dute zeremonia osoa.

Aldarearen gainean Ama Birjina eta Jesukristoren koadro erraldoi bat dago zintzilik; honen aurrean, beltzez eta morez jantzitako zazpi bat fraide bizardun, kono itxurako buruko banaz, eta elkarren ondoan eserita. Urre apainduraz estalitako apaiz nagusiak gidatzen du errittoa.

Bere isilune bakoitzak bide ematen dio ezkerrean duen emakume gazteen abesbatzari. Orduan, euren ahotsak katedralaren kupulapea betetzen dutenean, ez da zaila hunkitzea, hain da handia emozioa. Bukaeran, intentsu laino baten barruan, apaiz nagusiak bira egiten du elizan eta kanpaitxoan deian bere gurutzea ehunka fededunek musukatzen dute. Orain arte zutik egondako asko belauniko jarri dira.

Armeniako *Katholikos* ote den galdetu diot begiak bustita dituen Kasapiani, baina ezetz esan dit, amaiera arte ez omen da azaltzen. Eta hala izan da: monjez osatutako bi ilarek lagundurik atera da, morez jantzita, Garegin II.a. Bizar zuriko gizon handi honek urrezko zetro bat darama eskuan. Izan ere, armeniar estatua existitzen ez zen bakoitzean (Erdi Arotik ohiko egoera), *Katholikosak* armeniarren ordezkariak izan ohi ziren mendeetan zehar. Halakoetan, ofiziala ez zen estatu baten agintari izateak ospe handiagoa ematen zien buruzagi hauei nazioartean.

“Agian zeremonia hau gehiegizkoa iruditu zaizu baina armeniarrok asko sufritu dugu, eta egungo garaia ere ez dira batere onak guretzat. Ekhmiatzineko mezak, besteak beste, efektu katartikoa eragiten du gugan”, dio Kasapianek, Yerevanerako autobusaren zain gaudela. Atentzioa eman didate hasieratik gizon ttipi honen begi urdinek. Azkenean, honela argitu dit misterioa: “Nire familia mendebaldeko Armeniatik

Turkiak onartu ez duen errealitatea

2000ko azaroaren 14an, Europar Parlamentuak ebazpena atera zuen Ankarak armeniar genozidioa onar zezan. Europar Batasunean sartzeko oztopo izan dezakeen arren, Turkiak ezeztatu egin du beti armeniarrek planeatutako sarraski nahiz deportazioen biktima izan zirenik. Ankararen aburuz, gertakizun hau Lehen Mundu Gerraren beste edozein operazio militarren baitan kokatu behar da, eta ez besterik. Gauzak horrela, genozidioaren tesia defendatu duten Turkiako hainbat intelektualei kode penalaren 301. artikulua ezarri ohi zaie; “turkiartasunari irain egitea” delitua dela baieztatzen duena, hain zuzen. Hala gertatu zaie, besteak beste, joan den urtarrean eraildako Hrat Dink turkiar-armeniar editoreari edota Orhan Pamuk 2006ko Literatura Nobel saridunari.

etorri zen 1915ean, Van eskualdetik hain zuzen. Amak beti esaten zidan Van lakuaren kolore berekoak zirela gure begiak, eta nire amonari entzundako atsotitz bat errepikatzen zidan maiz: ‘Van mundu honetan, paradisua hurrengoan’, laku ertzeko herriaren edertasuna oroituz. Dena den, berak ez zuen inoiz lakua ikusi; ezta nik ere’.

Duela urte batzuk Van lakuan izan nintzen. Apenas zegoen armeniar iraganaren arrastorik, baina X. mendeko Akhtamar eliza bisitatzeko parada izan nuen. Munduko armeniar eliza zoragarriena irlatxo batean dago, laku ertzetik hiru kilometrora. Toki hura da, zalantzarik gabe, inoiz

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian





Ezkerreko irudian, deportazioen ikurretako bat, genozidioaren oroimenezko parkean, eta eskuinekoan, Yerevango Errepublikako plaza.

ikusitua dudaren edertasuna. Eraikinaren kanpoko azpirla beak nahiko egoera onean zeuden arren, barrualdea oso bestelakoa zen: lurra zaborrez beteta zegoen eta jasangaitza zen pixa usaina. Mila urte zituzten freskoak errotuladoren nahiz labanaz urraturik, besoa iristen den alturaino. Hauxe da, oro har, Turkian dauden armeniar eliza guztien egoera penagarria, gobernuak bota ez dituen behintzat.

Joan den martxoan, 18 hilabeteko berreraikitze lanak eta gero, Ankarako Gobernuak Akhtamargo eliza ireki zuen berri: gurutzerik gabe eta museo izateko egokitua. Inaugurazioa ospatzen ari zirela, poliziak turkiar banderak eta Atatürken irudiak zerratzen boskote bat atxilotu zuen. Ekintzailak pankarta bat ere zabaltu zuten: "Armeniar genozidioa ez zen existitu. Turkiar herria bihotz onekoa da eta ez luke inoiz horrelakorik egingo".

Armeniarren sua

Amona zahar bat sugar baten ingurua eskobatzeko ari da. Oso makur dabil, eta oso poliki mugitzen du erratza: aurrera eta berriro ere atzera, eta gero pausotxo bat, honela sugarraren inguruan bira egin arte. Hala ere, gaur ez da api-

rilaren 24a, eta mugimendu txikia dago hemen. Egun horretan, aldiz, milaka armeniar igotzen dira Yerevan gaineko Genozidioaren Monumentura. Robert Kocharian presidentea eta Garegin II.a pertsonaia ezagunak gain, toki eta klase guztietako armeniarrek loreak jartzen dituzte Betiereko Sugarraren inguruan. Lan handiz garbitu beharko lituzke emakume zahar honek egun horretan biltzen diren milaka krabelin, arrosa nahiz lore koroak.

Gaurko lore urrietako bat Robert Petersonek utzitakoa da. Estatubatuarra da, mendebaldeko armeniarra. "Kalifornian jaioa naiz, San Diegon. Nire gurasoek Beirutetik emigratu zuten Amerikara, hortik Peterson abizena; nonbait Petrosian ahoskaezina zen amerikarrentzat", argitu dit Petersonek. Bere irribarreak kontrapuntua jarri dio megafoniatik entzuten den musika etsigarriari.

"25 urte nituela etorri nintzen Armeniara lehendabizikoz, Sobietar Batasuna erori zenean —dio—. Ordura arte, armeniera etxean hitz egiten nuen hizkuntza baino ez zen; hemen, ordea, jende orok egiten zuen armenieraz: kalean, autobusetan, dendetan, zine ilaran... Txundituta geratu nintzen, ez nuen etxera bueltatu nahi! Aurretik, emaztea eta biok etorri gara, baina Janet haurdun dago eta hotelan gelditu da lasai. Dena den, toki hau ez du gustuko".

Genozidioaren oroigarritik ehun metrora museoa dago. Hamaika argazki daude paretan zintzilik, Petersonen arbasoek jasandako tortura eta basakeria zuri-beltzean erakusten dutenak: hezurretan dauden edadetuak, sudur eta belarriak moztutako gizonetakoak, hobiak gainezka,

Munduko zazpi milioi armeniarretatik erdia baino ez da bizi Armenian. AEB, Frantzia edota Australiako armeniarrek diru asko inbertitu ohi dute bertan



basamortutik errenkan dabilzan milaka emakume, batzuk jaioberria altzoan dutela... Stepanianen ama izan liteke umeetako bat, edo suaren oroigarria garbitzen duen emakumearena. Haurdun egonda, ulertzekoa da Janet Petersonek hau ikusi nahi ez izatea.

Robert Petersonen esanetan, juduek eta armeniarrek gauza berdin asko dituzte: herri merkatariak izatea, diaspora handi bat, herrialde propioaren gabezia urte askoz eta, noski, genozidioa, “baina juduen genozidioak askoz ere oihartzun handiagoa izan du beti; naziek dena grabatzen zuten eta aliatuek ere filmaketa asko egin zituzten gerra bukatzean. Gainera, Steven Spielberg zuzendariaren filmak ere asko lagundu du berriki”, gaineratu du Kaliforniako armeniarrek

**Kandelak pizten
Ekhmiadzingo
katedralean.**

**“Naziek dena grabatzen zuten eta
juduen genozidioak oihartzun
handiagoa izan du. Material
grafikoa falta zaigu munduak gure
tragedia ikus eta uler dezan”**

Robert Peterson

beste irribarre batez. “Museoan ikusi dituzun argazkiak alemaniarrek egindakoak dira gehienak, Lehen Mundu Gerran turkiarren aliatuak izan ziren-eta. Zoritxarrez, oso gutxi dira, material grafikoa falta zaigu munduak gure tragedia ikus eta uler dezan”.

Basaltozko hamabi losa altxatzen dira betiereko suaren inguruan, Mendebaldeko Armenian galdutako eskualde bakoitzaren ordezkari.

Amona euren itzalpean eseri da atseden hartzeko, nahikoa pasa baitu erratza gaurkoz. Pentsakor dago, tenplu biluzi honetan milaka egunez zaindu duen suari begira. Datorren apirilaren 24an hemen izango den ezin jakin. Hala ez bada, aurreko garrak betirako gordeko du bere memoria, hain gertu dagoen Ararat zuriaren altzoan. ■

**gure!
arteak
euskaraz**

